

Enpresa baten balorezko proposamena, bezeroei zer eskainiko zaien eta bezeroek gure alde egiteko arrazoi nagusienetakoa da. Beraz, balioa, enpresak bezeroei eskeintzen dien onura multzoa da.

Gure kasuan, bezeroei zerbitzu akademiko bat eskainiko diegu. Gure plataforman ikasle ezberdinek haien apunteak igoko dituzte beste batzuk apunte horiek erosi ahal izateko. Horrekin batera, klase partikular online-ak eskainiko dira. Modu honetan, arazoak dituzten ikasleek laguntza jasoko dute eta kurtsoa modu eraginkor batean eraman ahal izango dute. Izan ere, gaintitu ez ezik, kalifikazio onak ere lortuko dituzte.

Oso ohikoa den zerbait ez denez, gure bezeroei berritasun-sentsazioa sorrararaziko diela uste dugu. Izan ere, ikasleek askotan laguntza extra bat behar dutela sentitzen dute, eta batzuetan irakasleen laguntzarekin ez da nahikoa izaten. Gainera, nolabait, sistema hau ikasleentzat hurbilagoa izango dela uste dugu, azalpenak ikasle batetik bestera ematean, komunikazioa erosoagoa eta errazagoa baita, eta horrela lana erraztea lortuko lukete.